

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Zerbitzu kontratuaren lizitazioa, gazteen eta haurren aisialdia kudeatu eta dinamizatzeko

Alkatearen 2016ko azaroaren 3ko 161103A Dekretuaren bidez onartu zen espedientea gazteen eta haurren aisialdia kudeatu eta dinamizatzeko zerbitzuak kontratatzeko.

Aldi berean, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoa betez, kontratu horren lizitazioa iragartzen da.

1. Erakunde esleitzaila: Legutioko Udala.
2. Kontratuaren xedea: gazteen eta haurren aisialdiko zerbitzua kudeatu eta dinamizatzea.
3. Gauzatzeko epea: urtebete (1), beste bi (2) urtez luzatzeko aukerarekin.
4. Lizitazio oinarria: 89.468 euro (BEZa aparte).

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5.

6. Eskaintzak aurkeztea. zortzi (8) egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, Legutioko Udaleko erregistroan, 07:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera; epearen azken eguna jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

7. Espedientea eta baldintzen agiria: administrazio klausula berezien agiria eta baldintza teknikoena interesdunen eskura egongo dira Legutioko Udalaren bulegoetan eta web orrian (www.legutio.eus), eskaintzak aurkezteko epemugara arte.

8. Agiriak noiz irekiko diren: kontratatzailaren profilean iragarriko da (www.legutio.eus).

9. Iragakien gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

10. Proposamen eredua: baldintzen agirian adierazitakoa.

11. Balorazio irizpideak: administrazio klausula berezien agiriko 13. klausulan adierazitakoak.

Legutio, 2016ko azaroaren 3a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA